

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
9 positibo berri	1.609 hildako EAEn	11 positibo berri	528 hildako
2.303 positibo guztira*	10 UCIn EAEn	5.427 positibo guztira	2 UCIn
*Hernanin 64 Astigarragan 21		Sendatuak EAEn: 17.967 Naf: 9.214	

Auzolanerako deialdia datozen bi larunbatetarako

Itturizarreko pista moldatuko da bihar eta uztailaren 4an herriko txokoak txukunduko dira.

GOIZUETA AUZOLANA

Herriko txokoak txukundu eta garbitzeko auzolana deitu du Goizuetako udalak uztailaren 4rako, larunbaterako. Bertan parte hartu nahi duenak uztailaren 3a, ostirala arteko epea du udaletxera deitu eta izena emateko. Auzolaneko aseguruia egiten zaie izena ematen dutenei. Egindako lanaren truke, hamai-keetakoa eskainiko du Udalak auzolanean aritutako guztiei.

Ekainaren 30a arte ezingo da Itturizarreko pista erabili Bestalde, bihar Itturizarreko pista (Tartazu auzoan) moldatzeko auzolana egingo da. Hormigoia botako denez, ezingo da pista hau erabili ekainaren 30a arte.

Azkenik, herritarrei gogorarazi nahi zaie Txino auzotik Malenera arteko bidegorria oinezkoek erabiltzeko dela. Bide horretan, motordun ibilgailuekin etxebizitza edo lursaila



Auzolana bi larunbatetan egingo da.



Herriko belarrak kendu beharko dira.

dutenak bakarrik ibili daitezke eta erabiltzaile hauek abiadura mugak errespetatu beharko di-

tuzte. Gainera, kasu guztietan, bidegorritik doazen oinezkoek lehenasuna izanen dute. **K**



Urumea aldeko eskaileretan ere garbiketa egin behar da.

Mendiko ipuinen lehiaketa antolatu du Club Vasco de Camping Elkarateak lehendabiziko aldiz

Euskera eta gaztelerazko idatzi laburren lehiaketa izango da eta modalitate bakoitzean 800 euroko saria lortuko dute irabazleek.

URUMEA LITERATURA

Club Vasco de Camping Elkarateak ekimen berria aurkeztu du: CVCE-Errimaia mendiko ipuinen lehiaketaren lehen edizioaren ospakizuna. Arduradunek

diotenez, lehiaketa hau Euskal Mendi Federakuntzak antolatzen zuen Pyrenaica lehiaketa desagertu arte eta horren ondorioz mendi literaturan sortutako hutsa betetzeko intentzioarekin jaio da. «Eta errekorren eta

kronometroen garai honetan, hausnarketarako eta mendiaz astiro goatzeko txoko bat sortu nahi dugu».

Lehiaketa bi bertsiotan antolatu da, euskera eta gaztelaraz eta modalitate bakoitzeko, 800 euroko saria eramango dute irabazleek. Hortaz gain, CVCEko aldizkarian, *Errimaia*-en, irabazleen lanak argitaratuko dira.

Antolatzaileek irekita uzten dute hainbat edizioetan saritu-

tako kontakizunak eta finalistak biltzen dituen liburua argitaratzeko atea.

Mendia da gaia eta urriaren 15era arte eman daiteke izena Lehiaketako kontakizunen gai nagusia mendia izango da, ez kirol arlokoa bakarrik, eta formatua ipuin edo kontakizun laburrarena da. Izen-ematea eta lanak bidaltzeko epea irekia dago eta urriaren 15era arte

egongo da zabalik. Epaimahaia- ren erabakia azaroaren 15ean jakingo da, eta sari-banaketa- ren ekitaldia abenduan egingo da, *Errimaia*ren azken zenba- kiaren aurkezpenarekin batera.

Abentura berri honek, *Errimaia*ren erredakzioak urteetan jarraitu duen irrika baten burutzea suposatzen du, eta CVCEren ustez, elkarteko mendi jardueri balio erantsia emango die, bere kultur eskaintza zabalduz. **K**

CEPA Hernani HHI
Helduen hezkuntza

Matrikula epea ekainaren 22tik 30era arte

Matrikula egiteko bi modu:

☎ 943 33 53 18 ✉ 012076aa@hezkuntza.net

Ordutegia: 10:00 - 14:00

- DBH-ko TITULUA lortu
- Hizkuntzak: Ingelesa
- Zure ikasketak jarraitu
- Atzeritarrentzako gaztelera

OINDI

taberna

NAGUSIA, 25

HERNANI

943 557 509

Koldo eta Ana

Entsalada
Kostila patatekin
Postrea
Sagardo botila

22€
Larunbatean
enkarguz

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333



Giroak freskatzera egingo du eta kantauri isurialdean maximoak 20 gradutan ibiliko dira. Laino dezente izango dira, euria egin dezake eta iparraldeko haizea nagusituko da edonon. **Min.17° / Max.21°**



Zerua lainotuta egongo da egunaren hasieran, eta euri pixka bat ere egin dezake. Arratsaldean alertzera egingo du. Iparraldeko haizea ibiliko denez, tenperatura ez da askorik igoko. **Min.17° / Max.22°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: A. Etxebarría** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK



Gizakate ibiltaria presoan eskubideen alde Plaza Berritik hasiko da gaur

Sarek, Etxeratekin batera, elkarlanean antolatu du eta 20:00etan hasiko da. Ordu bete aurretik preso gaixoen aldeko materiala salgai jarriko da.

HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK

Sarek, Etxeratekin elkarlanean gizakate ibiltaria antolatu du, gaur, presoan eskubide urraketa salatzeko. 20:00etan Plaza Berrin hasiko da eta gizakate formatuan herrian ibilbidetxo bat burutuko du. Bestalde, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, larriki gaixorik dauden presoek buruzko materiala salgai izango da, hauxe ere Plaza Berrin.

Euskal Herria osoan 13 dira larriki gaixorik dauden presoak. «Tartean dira tamalez Garikoitz Arruarte eta Ibon Fernandez. Garikoitz 2012ean diagnostikatu zioten Espondilitis Anquilosantea delako gaitz larria. Aldiz Ibonek Esklerosi Anizkoitza du. Orain gutxi jakin dugu Gari Almeriatik Soriako espetxera ekarriko dutela».

Hernaniko Sare asko poztu da honen berri izatean, hala ere,

edalontzia erdi hutsa ikustearen sentsazioa dute: «etxetik gertuago izatea hobe dela badakigun arren, gogoratu nahiko genuke bai Gari eta bai Ibon, gaixo larriak izanik, kalean beharko luketela gaur egungo legedia errespetatu eta zintzo aplikatuko balitz. Hala nola, NBEko Presoak Tratatzeako Gutxieneko Arau Estandarraren (Nelson Mandela arauak) 24. araua eta Espainiako kode penalaren 80.4 artikulua. Legea aplikatuko balitz biak kalean beharko lukete, baina tamalez ez Espainiak ez eta Frantziak ere ez dituzte beraien legedi propioak errespetatzen». **K**

Haur parkeak zabaltu berri dituzte

Asteazkenean ireki zituzten haurrentzat, baina prebentzio neurri zehatzak bete behar dira hauek erabili nahi izanez gero.

ASTIGARRAGA UDALA

Astigarragako haur parkeak dagoeneko zabaltu dira. Asteazkenetik erabili daitezke, baina horretarako jarraibide zehatzak bete behar dira.

Haur parke bakoitzaren aforoa honela mugatuko da: pertsona bakoitzeko 4 metro karra-

tu. Haur parke bakoitzean kartel bat jarriko da, aforoa zenbatekoa den zehazten duena.

Haur parkeen garbiketa egiteko Udalak garbiketa-zerbitzua indartu du. Garbiketa lanak egiteko produktu homologatuak eta egokiak erabiliko dira, bate-tik, produktu horien desinfekzio maila kontuan hartuta eta, bes-

tetik, haurrek erabiliko dituztela kontuan hartuta. Garbitzen ari diren momentuan ezin izango da parkea erabili.

Aforoa mugatua denez, haur parkean jendea zain dagoela ikusiz gero txandak egin behar dira.

Gurasoei eta haurren ardura dutenei arduraz jokatzeko eta aforo-mugak eta gainerako jarraibideak errespetatzeko eskatzen die Udalak. Haur parkeekin batera, Urumea kaleko kantxak ere zabaltu dira. **K**



Segurtasun neurriak betetzeko Herri Eskolako areto nagusian egin zen odol ematea.

35 odol poltsa bete zituzten Astigarragako odol emaleek

ASTIGARRAGA ODOL EMATEA

Astigarragako Odol Emale elkartetik eskerrak eman nahi dizkie odola ematera gerturatu ziren guztiei, baita deialdia zabaltzen lagundu zutenei ere.

Erantzuna primerakoa izan zen. «40 odol emale behar ziren, eta erronka bete genuen. Gerturatu zineten guztietatik, azkenean 35 odol poltsa lortu ziren, beraz Astigarragak

espektatibak bete ditu». Deialdi berezia zen, aldaketekin, hurbildutakoen iritziak jaso zituzten eta transmitituko dituzte hurrengo deialdietarako kontutan izateko.

Auzo batzarra uztailaren 4an antolatu da

EREÑOTZU AUZO UDALA

Uztailaren 4an, larunbatean, Auzo Udalak auzo batzarra deitu du 10:00etan, Ereñotzuko frontoian. Esku artean duen egitasmoetako bat, Ereñotzuko futbol zelai inguruaren eraberritzea da. Martxoan bertan behera geratu zen. Ordutik, egoera pixkanaka normalizatzen ari den honetan, beharrezkoak diren neurriak jarrita, deialdia berriaz zabaltu da. Egitasmo honen zehaztapenerako auzotarren iritzi eta ekarpenak ezinbestekoak dira. Gaiak auzoarentzat duen interes eta garrantzia ikusita, komenigarria litzateke ahalik eta auzotar gehien elkartzea. Inguruan interesatuta egon litekeen guztiari abisua pasatzea eskertzen dute deialdia zabaltzearekin batera.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



JOSE MARI ALBERDI ECHAVE

Herenegun hil zen 89 urte zituela

- Goian bego -

Emaztea: Mari Carmen Erice; seme-alabak: Julene eta Joxean, Felix eta Amaia, Mari Jose eta Unax, Xabier eta Aloña; bilobak: Ane, Lide, Pello, Maddi, Beñat, Martin, Leire, Manex eta Garazi; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak, gainerako ahaideek eta bere zaintzailea: Mery Luz.



Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte! **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN**, **Hernaniko SAN JOAN BATAIATZAILAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko ekainaren 26an

OHARRA: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:00ak arte.

JOSE MARI ALBERDI ECHAVE

(Ikastetxeko irakaslea den Julene Alberdi Erice-ren aita)



Juleneri gure agurrik beroena.

HERNANI BHI INSTITUTUKO GURASO, IKASLE, IRAKASLE ETA LANGILE EZ IRAKASLEAK

Hernanin, 2020ko ekainaren 26an



JOSE MARI ALBERDI ECHAVE

Izan zirelako gara,
garelako izango dira...
Animo Felix eta familia
Muxu haundi bat



ANDONI, MAIDER, PILI, AINHOA, EKAITZ ETA NAHIA

Hernanin, 2020ko ekainaren 26an



IV. URTEURRENA

Juan Jose Mitxelena Etxeberria

2016ko ekainaren 26an hil zen, 65 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

- Goian bego -

Nahiz eta gureartetik urrutira joan
beti izango zaitugu gure bihotzetan.

Emaztea: Amparo Arrieta; seme-alabak: Maider eta Andoni, Nahikari eta Iker; bilobak: Alaitz eta Adei; anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.



Hernanin, 2020ko ekainaren 26an

Helbidea: Etxeberri auzoa

IRAGARKI MERKEAK

18 urteko neska gaztea lan bila, edozer lanetarako prest. **Deitu: 653 733 620**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**